



Datorren asteartea, abenduaren 1a, Barrendain plazan eta inguruetako kaleetan hainbat trafiko aldaketa martxan jarriko dira. Udal gobernua legealdi honetako agintealdi planean aurre ikusi bezala, trafiko azterketek utzitako emaitzak kontutan izanik, udalerrian dauden puntu beltzei konponbidea emateko ekimenak abian jartzeko konpromisoa agertu zuen. Herriko gunek ezberdinetan eta auzoetan hobekuntzak egiteko xedearen baitan hartutako erabaki honekin, herritarren beharrei egokitutako Beasain atseginago, erosoago, irisgarriago eta finean seguruago eta bizigarriagoa eraikitzen jarraitu nahi da.

Trafikoari dagokionez puntu beltz nabarmenena Barrendain plazako biribilgunea da. Hor biltzen dira udalerria zeharkatzen duten errepide nagusiak, bide gorria eta oinezkoen etorbidea. Hargatik ibilgailuen, pertsonen eta bidegorria erabiltzen duten gurpildun ibilgailuetako erabiltzaileen (txirrinduak, patineteak, ...) gurutzebidea da trafiko handia jasaten duena. Arrisku handiko gunea da pertsonentzat, ondorioz hainbat aldaketa egingo dira bai Barrendain plazan zein inguruetan

ibilgailuen jarria murrizteko puntu honetan. Kostu urriko aldaketa hauek behinik behingoak izango dira proba moduan, zein eragin duten ikusteko.

Aldaketak konkretuki hauek dira:

- Barrendain Plazan erreil bat itxi egingo da, Nafarroa Etorbidetik - Trenbide kalerako noranzkoan.
- Garmendia Otaola kalean, Oriamendi Kalea eta Nafarroa Etorbidea bitartean, norazko bakarra izango da, gorunzkoa.
- Mendeurren Etorbidea Kalea, Nafarroa Etorbidea eta Nabarro Larreategi Kale bitartean, norazkoa aldatu egingo da.
- Nafarroa Etorbidea bukaeran, Zapatari Kalearekin bidegurutzean, ezkerretara biratzea debekatu egingo da.
- Jarritako seinaleei kasu egitea eskatzen da.



Barrendain Plazan erreil bat itxi egingo da, Nafarroa Etorbidetik - Trenbide kalerako noranzkoan

Barrendain plazan eta inguruetan trafiko aldaketak abenduaren 1etik aurrera

Azken eguneratzea: Astelehena, 30 Azaroa 2020 19:19

Argitaratua: Ostirala, 27 Azaroa 2020 10:31



Garmendia Otaola kalean, Oriamendi Kalea eta Nafarroa Etorbidea bitartean, norazko bakarra izango da, gorunzkoa



Mendeurren Etorbidea Kalea, Nafarroa Etorbidea eta Nabarro Larreategi Kale bitartean, norazkoa aldatu egingo da.

Barrendain plazan eta inguruetan trafiko aldaketak abenduaren 1etik aurrera

Azken eguneratzea: Astelehena, 30 Azaroa 2020 19:19

Argitaratua: Ostirala, 27 Azaroa 2020 10:31



Zapatari Kalearen bidegurutzean, ezkerretara biratzea debekatu egingo da

